

# AKTA

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2023ko otsailaren 23a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:30    **BUKATZEKO ORDUA:** 19:40

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Anuska Esnal Oliden

**Zinegotziak**

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

## Gai-zerrenda

- 1.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, etxebizitzarako irisgarritasuna sustatzeko udal-ordenantzari.
- 2.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ETXEBIZITZARAKO IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO UDAL-ORDENANTZARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udal-ordenantzaren helburu orokorra hau da: zehaztea eta arautzea, indarrean dagoen legeriaren testuinguruan, pertsonak Orioko bizitegi-eraikuntzetan dauden eta ohiko bizilekua diren etxebizitzetara sartzea ahalbidetzen eta bermatzen duten esku-hartze irizpideak eta neurriak, horretarako behar diren obrak eta jarduerak eginez: igogailuak instalatu, arrapalak jarri...

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hirigintza batzordeak 2023ko otsailaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** etxebizitzarako irisgarritasuna sustatzeko udal-ordenantzari.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** udal-araudi hori, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-ordenantza hori interesatuen eskura dago Udalaren bulego teknikoan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-ordenantza, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate lehen alkateordeak hartzen du hitza eta, Hirigintzako batzordeko buru den aldetik, hau adierazten du: aipatutako udal-ordenantza bi ildotan mugitzen dela: batetik, arautegi urbanistikotik eratorritako oztopoak kentzen saiatzen da (lurzoruaren neurketari, antolamenduari eta afektazioari dagokienez) eta, bestetik, garatu egiten ditu Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 177j artikulua eta Legea garatzeko neurri urgenteei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 45. artikulua, Udalaren ahalmen desjabetzailea erregulatuz, nahitaezkoa denean.

### **2.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**